

solasean



Izen abizenak: Unai Bengoetxea Mujika
42 urte

Lanbidea: Industria

Euskara noiz ikasi zenuen? Nola? Non?

Txikitatik etxean izan dut euskara; Gorostidi baserrian jaioa naiz eta etxeko hizkuntza izan dut.

Euskal giroa izan dut beti inguruan, 10-14 urte bitartean pandero jo eta dantzan ere ibili nintzen Nerea arrebarekin batera (berak trikitixa jotzen zuen). Bertso eskola ere ezagutu nuen Andoainen, Aitor Mendiluzerekin batera.

Alde handia nabaritu zenuen Andoaindik Oionera?

Bai, batez ere erabileran, oso gutxi entzuten nuen euskara kalean eta hori arraroa zen niretzat... Kostatu zitzaidan pixka bat, bai...

Bestalde, erabileraren zuloa nabaritu arren, euskararen aldeko maitasuna ikaragarria izan da beti euskaldunon artean, baita garai haietan ere.

¿Cómo ves la situación del euskera en Rioja Alavesa? ¿Cuáles son los mayores déficits? ¿Qué harías para mejorar la situación?

Es evidente que hemos avanzado muchísimo en los últimos años, los



jóvenes saben euskera la gran mayoría gracias al modelo que se enseña en nuestros colegios e ikastolas. También hay muchas personas adultas todos los años en el euskaltegi. Creo que la Cuadrilla podría hacer algo más a favor del euskera, como organizar más actividades en Rioja Alavesa en euskera, planificar la utilización en diferentes ámbitos a su cargo o que cuentan con su ayuda: ya sea en los ayuntamientos,

en las bodegas, en las empresas y asociaciones que trabajan con la Cuadrilla o reciben ayudas públicas. A fin de cuentas, sería importante que la administración local tratara el euskera como algo prioritario.

Txandrio bertso-eskola. Hitz egiguzu pittin bat proiektu honi buruz.

Arantxa Sobrino, Edurne Azkarate, Endika Sarabia eta Orlando Arreitunandiaren berotu aldi batean ateratako ideia bati forma

eman eta Arabako Errioxako Bertso-eskola sortu zuten.

Bi bertso eskola dauzkagu: bata, Oionen eta, bigarrena, aurtan sortutakoa Bastidan. Bertan Orlandorekin 15 bat gaztetxo biltzen dira. Oso esperientzia polita, benetan!

2018an Arabako Kuadrilartekoan aurkeztu eta finalera iristeko ohorea izan genuen, Iker Olabarieta, Orlando Arreitunandia eta hirurok. Nahiz eta ez irabazi egun hartan, munduko txapeldun izango bagina bezala sentiarazi gintuzten gu animatzera joan ziren guztiek. Lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke bihotzez eskertzeko haien berotasuna.

Txadriotarren partez: Eskerrik asko!!!

Oiongo euskaltegian aritu zinen ikasten? Zer dela eta eman zenuen izena?

Bai, neure buruari erronka jarri nion, eta Oiongo IKAREN laguntzari esker gaiditu nituen azterketak eta EGA atera nuen.

Mundu guztia animatuko nuke euskaltegira apuntatzera. Gustatuko zaizue, benetan. Giro eta irakasle zoragarriak euskara ikasteko.

¡Ánimate a aprender euskera! Seguro que te gustará el mundo que descubrirás tras este idioma que nos une!

Jarrai dezagun lanean!!! Hizkuntza da lotzen gaituena! Gora Euskara!!!

Kutxa Bira izan dugu aurreko hilabetean Arabako Errioxan. Segurako (Gipuzkoa) Iparra-Hegoa elkarteak proposatu zigun azken urte zail hauetan euskararen sentsibilizazioari bultzadaxo bat eman nahian Kutxa Bira izeneko egitasmoan parte hartu nahi ote zuen gure eskualdeak, eta baiezkoa eman genion. Ekintza hori aprobetxatuta, euskaltegiko ikasleei eta euskaltegitik kanpoko batzuei bi galdera egin dizkiegu, bakar bati eta esaldi bakar batean erantzuteko eskatuta.

En mayo nos ha visitado Kutxa Bira. La asociación Iparra-Hegoa de Segura (Gipuzkoa) nos propuso si nuestra comarca quería participar en el proyecto para dar un impulso a la sensibilización del euskera en estos años tan difíciles y Rioja Alavesa aceptó. Aprovechando esta iniciativa, hemos realizado dos preguntas a los/as alumnos/as del euskaltegi y a otros cuantos amigos.

Zer da zuretzat euskara? Zer eman dizu euskarak?



AITOR

Altxorra, zaindu, babestu, irakatsi, indartu eta erabili behar duguna.



AMAIA

Gure herriaren arima, ezingo nuke Euskal Herria euskararik gabe ulertu.



NAROA

Hizkuntzak pentsamendua garatzen duen heinean, euskal kultura sentitzen, bizitzen eta kide izaten lagundu dit.



LORE

Euskara niretzat nire nortasunaren zati bat da. Euskaraz hitz egitea eta irakastea; zortea dela uste dut. Nire zati horretaz harro nago.



LEIRE

Euskarak daukadan bizimodua eman dit, eta ez hori bakarrik, seme alabena ere bai. Euskal Herriko hegoaldean haien ama/aita hizkuntza izatea lortu nire senarrarekin batera; oso harro gaude horretaz, euskara indartzeko beste pausu txiki bat da-eta.



JULEN

Euskarak gure herriko kultura ezagutzeko bidea eman zidan hasieran: abestiak, bertsoak... gozatzeko. Ondoren nire izatearen zati garrantzitsua bilakatu zen, eta etorkizunean ondorengoei transmititu eta Arabako Errioxako komunitate euskaldunaren parte izateko aukera eman dit.



GORKA

Niretzat euskara ama hizkuntza da. Komunikatzeko behar-beharrezkoa dudana hizkuntza eta munduan ezberdin egiten gaituen nortasuna; harro bezain xume garelara jakinarazten didan hizkuntza uniforme guztien gainetik! Hizkuntza gutxituen alde!



NOTXO

Euskara hitzekin azaltzeko ezinezkoa den zerbait da. Euskaldun berria izanda, euskarak bizitza beste modu batez ikusteko aukera eman dit.



GAIZKA

Euskara ama hizkuntza da; hizkuntza horretan hazi, hezi eta gozatzen dut. Nire bizitza euskararik gabe ez dut ulertzen. Euskarak behar gaitu, baina nik gehiago behar dut euskara. Euskararik gabe ez nintzateke ni izango. Hutsune handia edukiko nuke.

Euskarak dena eman dit: lagunak, familia, nortasuna, kultura... Baina bereziki bizitzeko modu polit bat. Zailtasunei aurre egitean lortzen duzun poztasuna ezin delako erosi. Adibidez, ikasle izan ditudanekin (orain nerabeak) euskaraz hitz aspertu bat edukitzea. Hori baino sari politagorik ez dago. Horrek asebetetzen nau.



ABRAHAM

Euskarak gauza asko eman dizkit. Batetik, elkartasuna euskaldun guztiekin. Ederra da Euskal Herriko edozein herritan ibiltzea eta bertako pertsonekin euskaraz aritzea. Harremana hurbilagoa eta pertsonalagoa iruditu zait beti. Gainera, Oiongoa zarela esandakoan, jendeak ez du espero, eta harrotasun puntu bat ematen dizu.

Bestetik, bertakoa den eta horren zaharra den hizkuntza jakinda, ezinezkoa da hau ez maitatzea.

Azken arrazoia ez da horren erromantikoa, baina egia da euskara titulua lortzean gustuko dudana lanpostu bat lortu ahal izan dudala.

ARABAKO ERRIOXAKO MEZUAK

Behin izan ginen.
Gero kendu egin ziguten, baina 50 urte borrokan eta lanean aritu ondoren, bagara. Gara, garelako eta nahi dugulako. Arabako Errioxa euskaldun! Ardoaren herrian zukutu euskara!

Lurra ez egin dudarik
Berak egiten gaitu ezberdin
Eta berak gaitu loturik
Guk lurra defendatu nahi dugu
Ez dugu beste helbururik
Eta horrela egingo dugu
Izendapenen gainetik

Euskaltegiko ikasleak

“Txoria hegan ikusiz disfrutatzeko bide bat da euskara niretzat, eta neuk ere hegan egiteko tresna”.

“Nire bizitzako alde politena ateratzen du euskarak”.

“Munduari gure kultura erakusteko modua”.

“Ez da hizkuntza bat bakarrik, kultura bat da identitate zigilu bat bezalakoa. Lagunak eman dizkit, abesti zoragarriak, eta horrela jarraitzea espero dut”.

“Euskara niretzat hizkuntza berria da, desberdina. Hitz batzuk ezagutzen nituen, eta zaila izan arren, polita eta interesgarria da. Gainera, oso poetikoa da”.

“Nire herriko kulturaren zati garrantzitsu eta ederrenetako bat. Harrotasuna sortzen dit jakiteak eta hitz egiteak”.

“Euskara ama zenak azokan ulertu ezin zuen hizkuntza, orain Euskal Herriatik kanpo bizirik mantendu behar dudana; nire heriotzaren ondoren hari irakasteko gai izateko”.

“Lanbroa denean, gure bazterrak usaintzeko modu bat da niretzat euskara”.

“Nire emozioak eta sentimenduak adierazteko aukera ematen dit”.

“Lagun bat da euskara. Gozatzeko aukera eman didan laguna. Gozatu ditut abestiak, ipuinak, kondairak, eleberriak, historia, jendea... lagunak eman dizkit euskarak”.

“Lagunak ulertzeko gaitasuna eman dit euskarak”.

“Ate asko ireki dizkit euskarak: jende berria ezagutzeko aukera eman dit, lan aukera hobek...”

“Euskarari esker entzuten ditudan abestien hitzak ulertzea espero dut, erromeriak asko gustatzen zaizkidalako”.

“Euskara niretzat legatua da. Ez nire arbasoena, baizik eta nirea sentitzen dudana lurrarena; borondatez aukeratu dudana identitate bat. Euskara haurtzaroko oroitzapenak dira oraingo errealitatea eta etorkizuneko desioak”.

“Euskarak sustraiekin lotura ematen digu. Gure identitatearen jarraipena da”.

“Niretzat oso hitz berezi eta politik dituen hizkuntza da nongoak garen adierazten duena”.

“Niretzat euskara zaletasuna da. Gainera, lagunekin komunikatzen laguntzen dit. Entretengarria eta dibertigarria da”.

“Euskarak gurasoek niri ematerik izan ez zuten transmisio-bidea eman dit seme-alabekin jarduteko”.

“Gailur eta tontor bat, zeinetan igo naitekeen beste mundu bati begiratzeko. Zirrikitu, arrakala, pitzadura eta behatxulo bat, zeinetan zehar ikusi ditzakedan ulertzen ez nituen gauzak”.



TESTUAK: Arabako Errioxako IKA

ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA.

ILUSTRAZIOAK: Arabako Errioxako IKA.

Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

Oiongo IKA euskaltegia. Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia. Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikauskaltegiak.eus>

errioxa@ikauskaltegiak.eus

zuek ere euskaraz



Oraingo ikasgaian lexikoari ekingo diozue. Seguru gaude ikasprozesuan hiztegiaren zakua ederki betea duzuela. Ea, bada, zelan moldatzen zareten ariketatxo honekin. Hitz-talde hauetan badira batzuk taldekideak ez direnak. Azpimarra itzazue.

1. armiarma, elai, liztor, erle, burruntzi,
burruntzali, bare.

2. lanpas, arasa, zizare, laratz, sutondo, apal,
inurritegi.

3. baldar, trakets, aza-kirten, zuhur, lerdo,
trauskil.

4. ortzegun, bigun, eguen, ostegun.

5. lasai, jabal, baketsu, boli, bare, patxadatsu.

6. temati, egoskor, butoi, herabeti, setati,
burugogor, zutoin

7. soro, belardi, larredi, landa, malda, pentze,
sasidi

8. aita ponteko, suhi, errain, ugazeme,
aitabitxi, zemendi

9. bare, urdail, orpazurda, zain, soin, zoin,
loka

10. ekaitz, enbat, zapardote, jasa, erauntsi,
ernai,

SOLUZIOAK

ZOIN-LOKA / ZAPARDOTE-ERNAI
ZUTOIN / MALDA-SASIDI / ZEMENDI
ZUHUR / BIGUN / BOLI / HERABETI-
BURRUNTZALI / ZIZARE-INURRITEGI



DATOS DEL CURSO 2020-2021KO IKASTURTEKO DATUAK

Alumnos/as	204
Presencial	160
Autoaprendizaje	44

BIZILEKUA/LUGAR DE RESIDENCIA

Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	106
Bastida	15
Biasteri / Laguardia	16
Bilar / Elvillar	6
Eltziego / Elciego	4
Ekora	3
Eskuernaga / Villabuena	2
Gorrebusto / Barriobusto	2
Kripan	3
Labraza	1
Lantziego / Lanciego	1
Lapuebla / Lapuebla de Labarca	14
Leza	1
Mainueta / Baños de Ebro	5
Moreta / Moreda de Alava	2
Nabaridas	1
Oion / Oyón	29
Samaniego	1
Araba / Alava	
Vitoria-Gasteiz	4
Nafarroa	33
Andosilla	1
Aras	1
Bargota	1
Lapoblacion	1
Lizagorria / Lazagurria	2
Mendabia	8
San Adrian	1
Sartaguda	1
Viana	17
Bizkaia	7
Barakaldo	1
Bilbo	4
Getxo	1
Zalla	1
Errioxa / La Rioja	53
Haro	8
Logroño	45
Beste batzuk / Otros	
Miranda de Ebro	1